

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleak gara. Startinnova sarearen bitartez gure etorkizuneko proiektu profesional posiblea aurkeztuko dizuegu.

Familia osotasunean kontutan izanik eta beraien beharrak hizpide hartuz, aisialdi, formakuntza zein aholkularitza zerbitzua eskaintzera gatoz.

Uste dugu gaur eguneko hezkuntza sisteman aldaketa nabariak ematen ari direla. Etxe gehienetan guraso biak lanean dihardute eta geroz eta denbora gutxiago konpartitzen da familia giroan.

Ziklo honetan ikusten ari garen bezala haur baten garapenerako ezinbestekoa da heziketa egoki bat jasotzea, hala nola; familiaren maitasuna, denbora, arreta...

Ezin dugu ahaztu gaurko haurrek biharko etorkizuna ekarriko dutela eta bide horretan gure aletxoa jarri nahi dugu.